

Ave Marian egingo den Sagardo Gunearen proiektua erakusketan Biterin

Jose Luis Loinaz arkitektoak egin du Sagardo Gunearen proiektua eta Biterin dago ikusgai.

UDALAK Ave Maria villan egingo duen Sagardo Gunearen proiektua erakusketan dago Biteri kultur etxean. Jose Luis Loinaz arkitektoak egin du proiektua. Museoa etxearen alboan erakiko da eta sagarrondo osatutako patio bat ere izango da. Horren inguruan areto ezberdinak kokatuko dira. Guzti honen planoak eta maketak daude erakusketan Biterin.

Areto hauetan sagarra eta sagardoa-
ren kulturaren inguruko alde ezberdinak

ezagutzeko aukera izango da: erlijioa, sagarrondo motak eta lanabesak, besteak beste. Eraikin honetan ekitaldi aretoa, taberna, jatetxea eta sagardoa probatzeko aretoa, liburutegia eta sagarrarekin egindako produktuak dituen denda izango dira.

Ave Maria etxea mantendu

Loinazen proiektuak Ave Maria etxea babesten du eta bertan izango du egoitza

Gipuzkoako Sagardo Naturalaren Enpresarien Elkarteak eta Kalitatearen Kontseilu Arautzaileak.

Zuhaitzen gehiengoa ere mantentzen du proiektu honek eta zuhaitz gutxiago dauden alderdian sagarrondoak jarriko dituzte.

Udalak azpimarratu du Loinazen proiektuak ahalegin berezia egin duela inguru pribilejiatu hori mantentzeko. Horrez gain dio, erakusketan honetan, Loinaz saiatu dela proiektu herriarentzat estrategiko hau ondo irudikatzen, ikusleek nola izango den ondo irudikatu dezaten. ||